

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

2021eko landa eta hiri ondasun higiezin gaineko zerga eta 2021eko 2. seihilekoko zaborren gaineko zerga kobratzea

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, hauxe jakinarazten dut:

2021eko urriaren 11tik 2021eko azaroaren 11ra bitartean, bi egunak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean 2021eko ondoko zergak:

1. Hiri ondasun higiezin gaineko zerga.
2. Landa ondasun higiezin gaineko zerga.
3. Bideetako mantentze lanen tasa.
4. Zaborren 2021eko 2. seihilekoa.

I. Ordaintzeko epea.

A. Borondatezko epea: 2021eko urriaren 11tik azaroaren 11ra.

B. Premiamendu aldia (ehuneko 5eko errekarguarekin): 2021eko azaroaren 12tik aurrera. Egun horretatik aurrera administrazio premiamendu bidezko prozedura betearazleari emango zaio hasiera, hala xedatzen baitu indarrean den Dirubilketarako Araudi Orokorrak.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A. Banketxeetan helbideraturako ordainketak: aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: Guardiako Udaleko bulegoetan borondatezko epean banketxeren batean helbideratuta ez daukatenek.

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeetako altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Guardiako Udalean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Guardia, 2021eko irailaren 27a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO